

Kolektibo zaurgarrien integrazio soziolaboralarekin konprometituta**EROSKI-K ETA GURUTZE GORRIAK HITZARMENA EGIN DUTE
GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIRENEI
LANERATZEN LAGUNTZEKO**

- **Helburua da kolektibo hori lan munduan murgiltzea**
- **Emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean izenpetu dute ituna**

Elorrio, 2024ko azaroaren 25a.- [EROSKI](#)k eta [Espainiako Gurutze Gorriak](#) hitzarmen bat sinatu dute genero indarkeriaren biktima izan direnei laneratzen laguntzeko. Hitzarmena izenpetzeko orduan, bertan izan dira Espainiako Gurutze Gorriko enplegu arloko arduradun autonomikoa, Teresa Romero, eta EROSKIren Berdintasun Behatokiko arduraduna, Marta Carazo, A-25aren harira, hots, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna.

Hitzarmenaren helburua izan da elkarrekin enplegua eskuratzeko aukera txikiak dituzten enplegarritasuna hobetzen laguntzea, batez ere genero indarkeriaren biktima izan direnena, eta, hala, aldaketak piztea lan merkatu zintzoago eta berdinzaleago baterantz. Era berean, bi erakundeek sentsibilizazio sozialeko kanpainak eta mezuek zabalduko dituzte.

"Beti da plazera EROSKIren moduko enpresa konprometitu eta dinamiko garrantzitsuekin aritzea, Gurutze Gorriarekin hala lerrokatuta lor baitaiteke ataka zailean diren guztiei laneratzen laguntzea. Izan ere, enpleguak laguntzen die pertsona horiei guztiz gizarteratzen", azpimarratu du Espainiako Gurutze Gorriko enplegu arloko arduradun autonomikoak, Teresa Romerok.

"Hitzarmen hau izenpetuta, beste pauso bat emango dugu genero indarkeriaren biktima diren emakumeei lan munduan sartzen laguntzeko eta gure taldean integratzeko, ziur baikaude horrek balioko diela suspertzeko eta etorkizuna

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



eraikitzeko. Gizarte zintzoago eta solidarioago baterantz era efektiboan joaten laguntzeko bideratuta dago, konpromiso hori jasota baitago gure balio korporatiboetan gure sorburutik”, azaldu du EROSKIren Berdintasun Behatokiko arduradunak, Marta Carazok.

EROSKIk 2005etik du Berdintasun Behatokia. Behatoki hori berdintasun printzipioa erakunde guztian betetzen dela zaintzeko tresna da, eta 2023an 18 urte bete zituen. 2023an, EROSKI Taldeak, bere Berdintasun Plana onarturik, Berdintasun Batzorde bat sortu zuen bera osatzen duten sozietate guztientzat.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)